



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Azken asteetan agertu diren bolumen handiko hondakinak direla eta (koltxoiak, sofak, oheak, TV, ateak...), herritar guztiei gogora arazi nahi dizuet, **hilabete bakoitzeko 3. ostegunean** etortzen direla hauek jasotzera, **aurrez** horrela **eskatuta**.

Horretarako, egun batzuk lehenago deitu behar da Tolosaldeako Mankomunitatera (943 67 62 16) abisua emateko. Zein herritatik deitzen duzun, zer botako duzun eta zenbat botako duzun esatearekin nahikoa da. Bota beharrekoa, jasoketa egunaren **bezperan utzi** behar da gaikako bilketa egiten dugun kontenedorearen ondoan.

Zerbitzu honetaz gain, gogoan izan, edozein momentutan eraman daitekeela bolumen handiko hondakinak Tolosan eta Andoainen dauden Garbiguneetara.

Azkenik gogoratu nahi dizuet, Tolosaldeako Mankomunitateak dituen zerbitzuen berri izateko eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko "**Hondakinak egoki sailkatzeko gida**" duzuela eskuragai <http://www.tolosaldekomankomunitatea.eus> web gunean.

Larraulen, 2017ko urtarrilaren 10ean
ALKATEA

